


ESTANKONA



Borja Estankona kantariak (Arratia, Bizkaia, 1979) kultura mundura egindako lehen ekarpenak Arratiako "Zantzoa" literatura taldean eman zituen eta hor uzartu zituen musika eta hitza. Baina Borja Estankona musikak eta, batez ere, gitarraren zurrumbloak gehiago erakartu izan dute. Gitarraren bidez jauzi egin zuen literaturara eta bien arteko harremana sendotu zen, poesia errezitallean bere gitarraren doinuaren musika gehitu zion hitzari. Idatzi tarreka eta musikan buru-belarri, Borja Estankonak Euskal Herriko poeta gazteekin harreman estua izan du. 2004an, Arratiako bi lagunekin batera, Areak taldea sortu zuen. Areak taldean murgilduta goitik-behera, bi disko argitaratu zituen urte berean ("Areak" eta "Higakorra", 2005, Gaztelupeko Hotsak). Euskal Idazleen Elkarteak 2008an "Atera dena" izeneko lana kaleratu zuen eta Borja Estankonak parte hartu zuen hitzaren eta abestiaren arteko batuketa horretan. 2006an, Areak taldearekin desegitearekin bat, bere bakarkako proiektuari eman zion hasiera Borja Estankonak. Bakarlari eta gidari baina laguntza sendo eta trinkoa bilatu diskoa osatzeko. Ixaso Etxebeste baxuilana (Katalamo) eta Jimmy Arrabit (Iloiz, King Mafundi, Anje Durhalde, Jimmy Arrabit Trio...).

Borja Estankonaren "Estankona" diskoa 2010eko udan grabatu da Gasteizko Sonora estudioetan eta Iñaki Alonsok egin ditu grabazioak, nahasketak eta masterizazioa. Diskoak bi laguntzaille nagusi izan ditu baina ez, ordea, musika atalean, hori ongi beteta baitute Ixaso Etxebeste eta Jimmy Arrabitik. Borjaren anaiek, Igor Estankona idazleak diskoa irekiko duen abestiaren letra idatzi du "Idatzia ez dago ezer". Maite Yurrebasok oso artistikoa den bideoaklupa egin du.

Estankona bakarkako lehen diskoan "Estankona" da. Tautologia. Rockaren izpirituaren barruan, amerikarra zain anglosajioa. Kantuetan badago tenisioa, indarra, bilakaera, helmuga eta irteera toki berean. Puntuetan zirkulua beti ixki egiten da kantuetan. Kantuetan historiak datoz. Poza, alaitasuna eta tristezia. Kantuek bilakaera dutenean, kantuen garapena da kontuan hartzen dena. Estankona bakarlariak abesti guzietei erantsi die gorago edo beherago ioateko artisia eta gogoia. Musika oinarri trinkoetan hartu du babesa. Ixaso Etxebeste eta Jimmy Arrabit musikariek ederki interpretatu dute Borja Estankonaren desioa, jakin dute bikain nola uzartu haren ahotsa eta gitarra biluziak. Gitarratzaileak itzes egiten dio soinui fardelari. arin joan nahi du, emeki eta fereka amultsuetan gorde nahi ditu indarrak. Estankona musikariaren doinuaren planoak berehala aurki ditezake, ez dago ez bidezidatzen edo zirikitu gehiegi erdibidean gaitzeko. Itzeeratik, rockaren helmugara zuzentzen zaitu erraz eta aho behe hortz sentimenduen bila. Estankona beti tenisioan, erne baina jantzi gutxiarekin, zure zain har dezazun bere osotasunean. Musikaren iraganak urruti daude eta orain Estankonak horrela (rock soil eta amultsu) nahi du izan eta modu horretan aurkituko duzu diskoa entzuten duzun unean.

Estankona proiektua bakarlari modura planteatuta duzu. Gero eta bakarlari gutxiago dagoen uneotan, musikariak nahiago dute talde baten babesan fardetzea aurpegia ematea baino?

Ez nuke horrela denik esango. Musikari bakoritzari galdetu beharke genioke hori, ia zergatik talde baten edo bakarka ari diren. Nire kasuan aspalditik izan dut bakarlari bezala ibilbide bat hasteko gogoia. Ibilbide emankorragoa eta luzeagoa irudikatzen dut bakarlari izanez talde baten izenpean arituz baino. Komposaketa, hitzak... proiektuaren ardura nagusiak nire gain hartzeak gogoz betetzen nau.

Estankona patxadazko tempoez horniturik dago anglosajioen menera, amerikar ukituarekin.

Eraginak hor daude. Gehien entzuten dudana musika rock amerikarra eta britainarra da. Baina aipatu behar dut azken urteotan musika etniko eta folk asko entzun dudala. Mundutik zehar musikalki inoiz baino gehiago bidaiatu dut urte hauetan, baita Euskal Herriko talde anitzetan harreta jarri ere. Azkenean gitarra bat da nire lan tresna eta aukerak teoriarik amaigabeak diren arren, gozamena eta pertsona bezela hazteko aukera ematen dizun hori lantzen duzu.

Estankona anaiek luma musikatuak edo musika lumatuak.

Nire anaia idazlea da. Berea da luma batez ere. Musika zalea ere bada. Berak erosi zituen lehenengoz Leonard Cohen abestiaren diskoak gure etxean eta gaur egun niretzat Leonard Cohen dagoen kantariak handienetakoa da, handiena ez bada. Anaiek ez dituzte orokorren, hitzak musikatuak izan ditezten idazten. Nik lehenengo musika egiten dut, eta gero hori ondo doazkion hitzak topatu. Nik, musikagatik ez bailiz, ziurrenik ez niok idazleari ekingo.

Borja Estankona: gitarra eta ahotsa

ritxi aizpuru (2011ko maiatzaren 10ean)